

EAEko administrazioen sarrera arruntek % 12,7 egin zuten behera 2009an

BPGrekiko finantza zorra igo zen: 2008ko % 4,3tik 2009ko % 7,2ra


EUSTATen datuen arabera, EAEko administrazioen (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udaletako administrazioak, horien erakunde autonomoak eta udalaz gaineko eta azpiko erakundeak) sarrerek % 1,0 egin zuten behera 2009an, 2008. urtearen aldean; gastuak, aldiz, % 5,4 igo ziren.

Sarrera guztien beherapena eragiketa arrunten ondorioz eman zen: guztirakoaren % 83 izan ziren eta beherapena % 12,7koa. Izan ere, kapitalaren sarreretan eta finantza sarreretan izandako igoerek ezin izan zioten aurre egin beherapenari.

Gastu guztiak % 5,4 igo ziren, finantzazkoak ez diren eragiketak % 5,2 igo zirelako eta finantza-eragiketak % 10,5.

Bilakaera horien ondorioz, "eragiketa arrunten saldoa" negatiboa izan zen, 247,5 milioi eurotan; eta "finantzazkoa ez den aurrekontu saldoa" 2008. urtearekiko narriatu egin zen, 3.020,7 milioi euroko defizita lortu zuen.

1. grafikoa. Euskal administrazioen zerga sarreren banaketa. 2009 urtea (%)



Iturria: EUSTAT. Sektore publikoaren aurrekontuen estatistikak

Zerga-sarreraren bilakaera aztertzean aurkitu den ezaugarri komuna, udal-zergak izan ezik, 2009ko zerga-bilketaren beherapena da.

Diru-bilketaren garrantzia kontuan hartuta egindako azterketaren arabera, PFEZren ziozko sarrerek (zerga-sarrera guztien artean % 34,4 izan zirenak) % 13,3 egin zuten behera. Bigarrenik,

BEZa, guztirakoaren % 33,5 izan zen eta % 8,4 egin zuen behera. Hirugarrena eta laugarrena dira, diru-bilketaren garrantziaren arabera, Zerga Bereziak eta Sozietateen gaineko Zerga. Hauek % 4,3 eta % 27,0 egin zuten behera, hurrenez hurren.

Garrantzi kuantitatibo askoz txikiagoa izan arren, udal-zergeek ez dute ia aldaketarik izan; eta beste zerga batzuek % 30,7 egin dute behera. Beste sarrera arruntek, gainera, % 13,0 egin zuten behera.

Gastuari dagokionez, finantzazkoak ez diren kapitulu guztietan eman ziren aldakuntza-tasa positiboak, transferentzia arruntetan izan ezik. Langileriaren gastuak % 6,1 igo ziren, aurreko urtean baino puntu bat eta lau hamarren gutxiago. Aurreko urtearen aldean hazkunde neurrizkoagoa izan zuten arren, beste gastu arruntak % 8,5 igo ziren. Transferentzia arruntetan joera-aldaketa eman zen: aurreko urtearen aldean % 8,0 egin zuten behera. Deskribatutako bilakaera multzoaren ondorioz, eragiketa arrunten ziozko gastua % 1,5 igo zen eta, kapital-gastuaren eragiketekin batera, finantzazkoak ez diren eragiketen ziozko gastuaren guztirakoa % 5,2 igotzea eragin zuen.

Eragiketa arrunten saldo negatiboa eta kapital-eragiketen saldo negatiboa batzean finantzazkoa ez den aurrekontu saldo negatiboa atera zen, 3.020,7 milioi eurokoa, hau da, 2009ko BPGren % 4,7.

Euskal Administrazioen likidazio finkatua. 2009-2008

mila euro	2008	2009	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	16.181.125	16.026.623	-1,0 %
Eragiketa Arruntak	15.308.586	13.360.037	-12,7 %
-Zerga Sarrerak	13.416.823	11.713.357	-12,7 %
PFEZ	4.648.560	4.028.560	-13,3 %
Sozietate-zerga	1.708.884	1.246.904	-27,0 %
BEZ	4.280.279	3.922.028	-8,4 %
Zerga Bereziak	1.478.679	1.414.394	-4,3 %
Udal-zergak	651.712	652.036	0,0 %
Bestelako Zergak	648.709	449.435	-30,7 %
-Bestelako sarrera arruntak	1.891.763	1.646.680	-13,0 %
Kapital-eragiketak	259.656	559.363	115,4 %
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	15.568.242	13.919.400	-10,6 %
Finantza-eragiketak	612.883	2.107.223	243,8 %
GASTUAK GUZTIRA	16.739.868	17.635.817	5,4 %
Eragiketa Arruntak	13.411.726	13.607.574	1,5 %
Langileria Gastuak	3.265.489	3.464.284	6,1 %
Transferentzia Arruntak	5.242.693	4.822.929	-8,0 %
Bestelako Gastu Arruntak	4.903.544	5.320.361	8,5 %
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	2.698.674	3.332.518	23,5 %
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	16.110.400	16.940.092	5,2 %
Finantza-eragiketak	629.468	695.726	10,5 %
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.896.860	-247.537	-113,0 %
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZARIOA	-542.158	-3.020.691	457,2 %

Iturria: EUSTAT. Sektoare publikoaren aurrekontuen estatistikak

Administrazio publikoen zor bizia 4.678,2 milioi eurokoa izan zen 2009ko abenduaren 31n. Egindako pasibo berrien eta ordaindu gabe dagoen zorraren amortizazioaren arteko aldea 1.751,9 milioi eurokoa izan zen 2009. urtean; hots, 2008. urteko amaieraren aldean zor garbia % 59,9 igo zen.

Zorraren igoera horrek ekarri du BPGri dagokionez ehunekoa % 4,3raino igotzea 2008an, eta % 7,2raino 2009an.

Euskal Administrazioen datu finkatuak. 2009. urtea

mila euro

	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	13.360.038	7.420.199	2.560.678	6.765.816	4.226.083
GASTU ARRUNTAK	13.607.574	8.610.791	2.196.688	6.323.029	4.089.804
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	-247.536	-1.190.592	363.990	442.787	136.279
KAPITAL SARRERAK	559.363	93.808	85.840	325.626	256.509
KAPITAL GASTUAK	3.332.518	1.410.849	286.832	1.010.018	827.238
AURREKONTU-SALDO EZ- FINANTZIARIOA	-3.020.691	-2.507.633	162.998	-241.605	-434.450
ZOR BIZIA (Amortizatzeke 08-12-31)	4.678.224	2.616.750	341.353	1.118.558	601.563

Iturria: EUSTAT. Sektorre publikoaren aurrekontuen estatistikak

2009. urtean, administrazio publikoa 1.096 erakundek osatzen zuten. Guztira 111.834 langile izan zituen, 2008an baino % 1,2 gehiago. Langile guztien artean % 68,7k Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sektore publikoan lan egin zuen; % 9,1k foru administrazioetako sektore publikoan eta gainerako % 22,2k tokiko administrazioetako sektore publikoan. Lan motari dagokionez, % 69,9k enplegu finkoa zuen.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Jose Javier Aramburu

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Sektorre Publikoaren Aurrekontuen Estatistikei buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Sektorre Publikoaren Aurrekontuen Estatistikei buruzko datu-bankua